

Iker Galindo Peromingo

B maila • Aipamena



Kaixo, ni Iker Galindo naiz. La Salle Beasaingo ikaslea naiz. 15 Urte ditut. Nire ipuinaren izenburua hogeita sei da. Ipuineko pertsonaia nagusiak arazo mental ugari dauzka eta horietako bat etengabe hogeita sei arte zenbatzea da. Horregatik aukeratu nuen hori izenburu gisa. Asko poztu nau sariak eta benetan eskertzen dut. idazten jarraitzeko animoak ematen baitizkit.

HOGEITA SEI

Batzuetan txoriak ikusten ditut. Bai txoriak. Asko. Nire bila datoz. Urduritasunarengatik barre egiten dut. Ez du barregurarik ematen. Askotan, iluntasunean nabaritzen dut nire gorputza. Bai iluntasuna. Oso ilun, oso ilun. Neguko gauak bezain ilun. hogeita sei urte ditut. Bat, bi, hiru... hogeita sei. Zoro etxean hamasei nituenenik.

Esan daiteke bakarrik hazi naizela. Bakarrik. Laguntzarik gabe. Gabe. Bakarrik. Nire gurasoak bi urte nituenean joan ziren hemendik. Gorantz. Oso goran daude niri begira. Sentitzen ditut begiratzen. Presioa. Asko. Kotxean gindoazen eta argi bat azaldu zen. Soinu batekin. Kamioia. Eztanda. Eztanda zeuden biak. Gaztea nintzen baina gogoratzen ditut. Gogora. Gorroto.

Txoriak nire bila datoz. Txori beltzak, ilunak. Iluntasuna nabarmentzen da nire bizitzan. Lau, bost, sei... hogeita sei. Nire bizitza lau urte nituenean hasten da iluntzen. Bai iluntzen, asko. Eskizofrenia dut. Ez dut nire bizitzaz gozatu. Akats handia. Handia. Txoriak nire atzetik ibili dira nire bizitza osoan. Beraiekin eraman nahi dute. Ez naute lortuko. Ez diet utziko.

Etxean nengoen, txoriak nire bila etorri ziren. Labana hartu nuen eta mozketa. Bai mozketa. Txakurra harrapatu nuen. Bai txakurra. Txakurra hartu eta ganbarara igo nuen. Ganbarara. Hiru aste pasa ziren. Luzeak. Isilik mantendu nintzen. Mutu. Nire buruko iluntasuna ezkutuan uzten. Ezkutuan, inork ikusi gabe. Azkenean konturatu egin ziren. Zazpi, zortzi, bederatzi... hogeita sei. Toki arraro batera eraman ninduten. Arraroa oso. Nire ustez urte bat pasa izan nuen han baina, aste bakar bat izan zen. Ezin nuen lorik egin. Ahotsak entzuten nituen, ama-aitarenak. Biak hilda zeuden arren. Hilda. Deitu egiten zidaten. Beraiekin eraman nahi ninduten baina, ez nien utzi.

Urteak pasata beste behin ikusten dut nire burua toki hartan. Oraingoan bizi nintzen pisuari su emateagatik. Suak iluntasunari irabazten dio, bera baino indartsuagoa da. Askoz. Beroa. Nire buruko hoztasuna joaten da berriz ere bueltatzeko. Oraingoan gela zuria da. Koltxoia lurrean, aurrean, atzean, ezkerretan, eskuinean eta zoruan. Kamiseta antzeko bat dut jantzita. Ezin dut kendu. Garrasiak entzuten ditut. Nire garrasiak. Hemendik atera egin nahi dut. Baina ezinezkoa da. Hamar, hamaika, hamabi... hogeita sei. Irtetea lortu dut. Bai lortu.

Hamasei urte, aske izandako azken urtea. Kotxea hartu eta errepiderrantz joaten naiz. Ez noa errepidetik. Kotxe aurrean dagoen edozer zanzatzen dut. 60 kilometro orduko. Kotxea kolpe

batez gelditzen da. Ni barruan nago, ez dut minik jasan. Ondo nago. Aurretik eraman ditudan beste hogeita sei pertsonak ez.

The Times

26 PERTSONA HIL DIRA KOTXE BATEK HARRAPATUTA LONDRESEN

2002/07/19

Kotxe batek 100 pertsona harrapatu ditu gaur arratsaldean Londreseko erdigunean. Istripua ondoren 26 pertsona hil dira eta beste hamar zauriturik eraman dituzte erietxera. Gidaria gelditu eta atxiloturik eraman dute komisaldegira. Ez zaio droga arrastorik aurkitu. Gizonezkoa da, 26-27 urte artekoa. Ez du minik jasan istripuan. Aurrekari psikotikoak ditu. Kotxetik ateratako momentutik batetik hogeita seira zenbatzen pasa du denbora guztia, etenik gabe.

Bi aste kartzelan, azkenean eroetxera. Bai eroetxea. Eroen etxea. Hamahiru, hamalau, hamabost... hogeita sei.

Eroetxea ez da. Egon nahi duzun tokia. Ez da. Oso toki bakartia. Iluna. Kamiseta jarri ordez lotuta igarotzen ditut eguneko ordu asko. Lotuta. Besoak eta hankak lotuta. Beraiek ematen didate jana. Deabru gorriak. Bakarrik uzten naute. Deabruak. Ez dut lorik egiten. Gauero hogeita zortzi ahots ezberdin eta txakur baten zaunkak entzuten ditut. Egun hartako hogeita sei, aita, ama eta George. Horrela izendatu dut. Horrelaxe. Ezinezkoa lo egitea. Hamasei, hamazazpi, hemezortzi...hogeita sei.

Nire bizitzako azken hamar urteak pasa izan ditut. Horrela, hemen sartuta. Atera ezinean. Ez dut inoren laguntza eduki nire bizitza osoaren zehar. Gauza txar asko egin ditut. Ez nago batere harro. Harro. Gauza txarrak egin ditut. Harrigarria. Harrigarria da hemen goitik ikus daitekeena. Benetan harrigarria. Harri. Zapaltzen ari naiz. Zapaltzen ari naizen harria. Gaur ateratzea lortu dut. Infernu zahar eta ilun hartatik. Seigarren pisura igo naiz. Altura dago. Eskailera asko. Bai altura. Nahikoa gurasoei bisita bat egiteko. Labana bat dut nirekin ere. Labana. George. Geo. Gero arte. Agur. Nire buruaz beste egiteko asmoa dut. Beste. Salto egiten dut. Eta beltza dago dena. Hemeretzi, hogeit, hogeita bat, hogeita bi, hogeita hiru, hogeita lau, hogeita bost, hogeita sei. Hogeita sei.

The Times

LONDRESEN ABBEY ROAD KALEAN ISTRIPUA ERAGIN ZUEN GAZTEAK BERE BURUAZ BESTE EGIN DU

2013/12/27

Abenduaren 26an 26 pertsona hil zituen gazteak bere buruaz beste egin zuen atzo goizean. Honek ikertzaileen arten harridura sortu du agertzen diren loturengatik. 26 urte, 26 hildako... Patuaren indarra?